

Kirol instalazioen egoerari buruzko argibideak [Abajo en castellano]

Andu Martinez de Rituerto, Tolosako alkatea

Kaixo guztioi:

Gauza asko esan behar ditut, eta arriskua edukiko nuke adarretatik joateko, orduan irakurriko dizuet esan beharrekoa, eta gero dituzuen zalantzak argituko ditut.

Tolosako kirol instalazioekin bizi dugun egoerari irtenbidea eman nahian udalak eman dituen eta emango dituen urratsak ahalik eta modurik argigarrienean azaltzea da agerraldi honen helburua.

Hasteko, iragarri nahi nuke, behin prozedura administratibo eta txosten juridikoak osatuta, gaur goizeko batzordean dokumentazio guztia aztertu eta zalantza guztiak argitu ditugula. Hau eginda, **kirol instalazioen kudeaketarako BPXport enpresarekin indarrean dagoen kontratua deuseztatzeko, eta lizitazio berri baten prozesua abiarazteko irizpenei aldeko botoa eman diegu. Datorren asteartean, azaroaren 14ean, ezohiko batzarra deitu dugu eta bertan aipatutako prozedurei bidea emango diegu.**

Dokumentazio tekniko eta juridiko ugari eskatzen duten prozedurak dira. Jarraian laburbilduko ditut erabaki hori hartzeko arrazoiak eta gainerako xehetasunak. Baina, hori baino lehen, komeni da argitzea udalak afera honetan izan duen esku hartzea.

Izan ere, **elkarrizketaren bidea jorratuz, adostasunak bilatzea izan da lehen aukera**. Era berean, gure izaeran dagoelako erabakiak inplikaturako aldean adostasunarekin hartzeko nahia, eta bestetik, horixe zelako konponbiderik azkar eta errazena.

Udal gobernuak, egungoak, eta ausartuko nintzateke esatera aurrekoak ere bai, saiakera ugari egin ditu, langile, sindikatu eta enpresarekin behin eta berriz hitz eginez, soluzio bat emateko. Hamaika saiakera egin arren, ordea, ez da inondik ere blokeo egoera gainditzerik izan.

Afera honetan udalak duen lotura bakarra, egun indarrean dagoen emakida kontratuarena da. Blokeo egoera ezin gaindituta, eta kontratu hori denbora luzez betetzen ari ez dela ikusirik, kontratuari eragiten dioten neurriak hartzea besterik ez zaigu geratu.

Zergatik, eta zertan oinarrituta hartuko du erabaki hau udalak? Arrazoi ezberdinak daude tartean, baina nagusiak bi hauek dira:

1. Emakidadunak datu ekonomikoetan hasierako proposamenean ez zegoen kontzeptua sartu du, kontratuaren emaitza ekonomikoa desitxuraturaz. Gaurko batzordean, 2022ko emakidadunak ustiapen kontuan aurkeztutako datuak ez onartzea erabaki dugu. Gero emango dizkizuet azalpen gehiago.

2. Eta, garrantzitsuena dena, adostutako zerbitzua ez dela epe oso luzez eman.

Datu ekonomikoei buruz honako hau esan bahar dizuet:

Enpresak aurkeztutako bi dokumentutan jarriko dugu azpimarra: 2022ko ustiapen ekonomikoko datuetan; eta 2024rako aurreikuspenetan. Bi dokumentu horien azterketatik, ikusi dugu:

- Ez naiz sartuiko inbertsioen atalean, behar baino gutxiago egin zituzten 2022an, baina alde horretatik ulerkorrak ere izan gaitezke, lau hilabetetan aritu zirelako eta batzuetan ez delako erraza inbertsio horiek egitea. Dena den, 56.000€ko inbertsioak egin behar zituzten epe horretan eta 7.000koak egin zituzten bakarrik.
- Baina bada larriagoa iruditzen zaigun datu bat. Eta da gastu orokorra. Kontzeptu berri hau sartu zuten, eta hemen ikusten dugu bere taldeko, BPXen taldeko enpresa batek fakturatutako 71.000€ko gastua sartu zutela. Kontutan hartu gastu hori lau hilabetekoa dela, eta urteko gastuak 200.000€tik gora suposatuko luke.

Gastu hau ez zegoen jasota udalak egindako azterketa ekonomikoa, ezta enpresak berak aurkeztutako bere eskaintzan ere. Hortaz, **aldabakartasunez sartutako gastua da, inolaz ere udalak onartutakoa. Hau garrantzitsua da, datu honek erabat baldintzatzen duelako kontratuaren emaitza ekonomikoa.**

- Hornidura gastuetan ere igoera nabarmenak antzematen dira, elektrizitate eta gasaren kasuan bereziki, prezioen garestitzea argudiatuta. Enpresak berak bere gain hartzen duen arriskua da hori, (arrisku-operazionala deiturikoa) eta inondik ere ez da udala horren erantzule, nahiz eta azken finean, ondorio izango lukeen, eta gastua faturekin justifikatzen bada, udalari ere eragina egingo liokeen irabazi aldagaietan.

Hiru puntu hauek kontutan izanda ere, 2022ko emaitza ekonomikoa positiboa da, eta gainditu egiten zituen udalak kontratuan jasotako aurreikuspenak, baita enpresak berak bere eskaintzan aurkeztutako aurreikuspenak ere.

Enpresak, behin eta berriz, kontratuaren bideragarritasun eza argudiatu du. Eta hori ikusirik, hurrengo ikasterterako, 2024rako hain zuzen, gastu eta sarreraren aurreikuspenak, eta bideragarritasun eza arrazoitzeko dokumentazioa eskatu zitzaion udaletik. Bada, aurkeztutako datuetan, irregulartasunak antzeman zituzten Kontuhartzaitzak, Idazkariak eta Kontratazio teknikariek:

- Lizitazioko azterketa ekonomiko-finantziariorik eta enpresak berak aurkeztutako azterketa ekonomikotik aldentzen dira datu asko, eta diru-sarrera batzuk ez dituzte sartzen.

- Pertsonal gastuetan, esleipenaren azterketa ekonomikoan eta enpresak berak lehiaketan proposatutakoak baino baxuagoak ziren, 50.000€ baino gehiagoko aldea zegoen. Langileen gastua, beraz, ez da iristen emakidadunak aurkeztutako aurreikuspenetara. Bere aurreikuspenetan, lizitaziora aurkeztu zenean, aurreikusten zituen pertsonal gastuak, 2024rako beharko lituzkeenak baino altuagoak ziren.
- Egiturazko gastuen partida zerotik 210.000 euro baino gehiagora igotzen dute. Hau da, 2022an sartu zituzten 71.000 horiek, 2024rako aurreikuspenetan, sartzen duten 210.000 eurotik gorako gastua da. Aurrez ere esan dut, aldebakartasunez sartzen duten gastua dela, udalaren inolako kontrasterik gabe, eta honek emakidaren ekonomiari zuzenean eragiten diola. Gehitu nahi dut, esan ez badut ere, **gastu hau hasieratik enpresaren proposamenean jasota balego ere, kontratazio organoak atzera botako lukeela, ez litzatekeelako bideragarria.**
- Hornidura gastuak ere nabarmen igotzen dituzte, arrisku-operazionala bere gain hartu gabe eta egungo prezioengandik urrun: gasaren kasuan, 2024rako egungo merkatu prezioa eta kontsumoaren bikoitza baino gehiago; energia eta uraren kasuan, %37ko igoera proposatzen dute; eta mantenimenduan %47koa.
- Inbertsioen kasuan, aurkeztutako datuen arabera, 140.000€tik gorako defizita sortuko lukete, aurreikusitakoa beteko ez luketelako. Enpresak berak lehiaketan proposatutako hobekuntzak ere egin gabe leudeke. Hortaz, kontratuan jasotakoa urratzen ariko lirateke kasu honetan ere.

Hau ikusita, hortaz, ondorioa garbia da: **enpresak berak aldatutako datuek sortzen dute egoera ekonomikoaren desoreka.** Are gehiago: Enpresak 2022ko emaitzak 2023ko apirilaren 14an, aurkeztu zituen, eta bertan +19.467,81€-ko balantze positiboa egiten zuten. Gure teknikariek egindako zuzenketekin, berriz, 2022ko ustiapen kontuaren likidazio emaitza 92.329,36 eurokoa litzateke. Eta hauek dira gaur onartu ez ditugun kontuak eta zuzenketa proposatu dugunak.

Emakida honetan bazeuden bi aldagai: alde batetik zegoen kanona, 120.000€koa. Inongo baldintzarik gabekoa. Eta gero zeuden irabazi aldakorrak. Horietan 62.000€ arte enpresak zuzenean beretzat hartzen zituen. Eta hortik gorakoak, berriz, kalitatezko estandar batzuk beteta, %70a beretzat izan zitekeen, eta gainerakoa udalarentzat. Orduan, balantzea 19.000 eurokoa aurkezten bada, nolabait partida gehigarriak sartuz, 62.000 euroko muga hori ez da gainditzen, eta mozkin guztiak enpresarentzat dira. Eta aipatu bezala, 62tik 92ra banaketa batek egon beharko luke, kalitatezko azterketa estandarrak betetzen badituzte, eta horren %30a udalarentzat beharko luke: 10.000€ko irabaziak + kanona.

Txosten ekonomiko horrekin batera, enpresak proposamen bat ere egin zion udalari, kontratuaren ustezko desoreka puskatzeko –esan gabe doa, ustezko desoreka diodala, enpresak berak emandako datu horien ondorioz suertatzen delako desoreka hori–. Hauxe zen proposamena: tarifen %2,1eko igoera aplikatzea, eta horrez gain, udalak 293.000€ko diru ekarpena egitea.

Orduan hemen ditugu, alde batetik, gastu orokorrak, 217.000 eurokoak, gehi ekarpen hauek.

Aurrez argitu izan dugu publikoki puntu hau, baina gogoratzea komeni da: **udalak ezin duela, legez, inolaz ere diru ekarpenik egin emakida batean**. Emakida kontratuak ez du aukerarik ematen udalak dirua jartzeko, eta epaiak daude horrelako kasuetan, eta bat Gipuzkoan bertan. Udal batek emakida batean dirua txertatu, eta atzera bota epaitegiek. Hori oso garbi izan dugu hasieratik, gure teknikariek hala esanda.

Kontratu honek zuen finantziario bide bakarra bazkide kopurua dira, eta kuotak. Kuotak, beti ere, oso baldintza zehatzetan. Nolabait, desoreka ekonomikoa konpentsatzeko, baina diodan bezala, ez naiz sartuko oso kontu zehatz eta teknikoetan, baina juridikoki oso zehaztuta dago zein egoeratan igo daitezkeen kuotak, eta kasu honetan ez zegoen tokirik.

Hortaz, enpresak proposatutako diru ekarpen hori egitea legearen kontrakoa litzateke.

Hori ikusirik, tarifak %2,5 igotzeko proposamena egin zuen udalak abuztuan, esan bezala, kontratuaren mugetaraino joanda. Gure teknikariek behin eta berriz esan ziguten, oso zaila zela. Baina, dena dela, nolabait kontratuaren hainbat ertz bilatu zituzten, justifikatu zezaketenak %2,5eko igoera hori. Diodan bezala, esfortzu handia eginda hori justifikatzeko.

Honekin adierazi nahi dut, udalak esfortzu gehigarri bat egin duela. Guk ez genuen zergatik hori egin nahi. Baina egoera desblokeatzeko, eta jakinda kontratuaren ekonomia egokia zela, hala ere, esfortzu hori egin genuen, pentsatuz bide bat izan zitekeela zegoen korapiloa askatzeko.

Enpresak proposamen hori ez onartzea erabaki zuen, eta akordioaren bidea agortutzat emanda, kontratuari zegozkion neurriak hartzea izan zen hurrengo urratsa. Berriz diot, batik bat, kontratuan jasotako zerbitzua denbora luzez ematen ari ez zelako. Dagoeneko sei hilabete eta bi egun pasa dira.

Eta zerbitzuari dagokionez, hauxe:

Udalak errekerimendu bat baino gehiago bidali dizkio enpresari, zerbitzua berrezarri zezan. Azkena irailean, ikasturte hasieraren atarian, instalazioak itxita izateak eragiten zituen kalteak zirela-eta. Hain zuzen, errekerimendu horretan bertan, ohartarazi zitzaion zerbitzua berrezarriko ez balute, kontratua deuseztatzeko prozedura abiatuko zuela udalak.

Enpresak 10 egun ditu errekerimendu hori irekitzeko; eta beste 10 erantzuteko; bada, bederatzigarren egunean ireki, eta ondorengo 10. egunean honako hau erantzun zuen:

Zerbitzua emateko borondate osoa izan arren, ezin zuela zerbitzurik eman, langileen greba eskubidea medio. Gainera, zerbitzua ematen ari zela Berazubin eta Beotibarren. Eta gauza bera egin zuela Uzturpe frontoian, instalazioen egoera kaskarragatik itxi zen arte.

Aipatzekoa da, lehen bi instalazio horietan ez duela zerbitzua bere osotasunean eman, eta emandako zerbitzu gutxi horiek pertsona autonomo edo kirol taldeekin dauden hitzarmenei esker egiten dela. Eta, oro har, ez da instalazioek eskatzen duen mantenu eta zaintzarik egin.

Honek ondorio larriak utzi ditu 11.000 erabiltzaileengan: eta bereziki, araututako hezkuntzan (gogora dezagun ikastetxeek instalazio horietako batzuk erabiltzen dizutela gorputz heziketa fisikorako) eta kirol taldeen jardunean.

Mantenua ez ezik, instalazioen babes eta segurtasuna ere auzitan jar liteke. Izan ere, Usabal kiroldegiko futbol zelaira sartu izan dira, eta enpresari dagokio zainketa. Eskatu arren, ez ditu behar adina neurri hartu.

Enpresak emakida-kontratua sinatzen duen unetik, konpromiso eta betebeharrak ditu, eta horien artean dira zerbitzua modu jarraituan ematerena, jasotako baldintzak errespetatuz noski, eta zerbitzuaren ordena zaintzearena. **Maila ezberdinetako auzitegiek emandako epaien arabera, lan gatazka bat ez da inondik ere pisuzko argudio bat, zerbitzua denboran mugarik gabe ez ematea justifikatzeko.**

Behin hau guztia azalduta, azpimarratu nahi nuke, sakon hausnartu eta aztertu direla erabakiak, juridikoki oso konplexuak baitira. Baina egindako azterketen arabera, eta kanpo zerbitzu juridikoek ere aholkatu diguten arabera, pisuzko arrazoiak ditu udalak erabaki hau hartzeko. Eta aldeko jurisprudentzia ere bada.

Honaino astearteko batzarrean landuko dugun lehen puntua, kontratua deuseztatzeko prozesuari abiadura emango diona. Eta hemendik aurrera, zer?

Esan bezala, beste fase bat zabalduko da, eta prozesu berri bati hasiera emango diogu. Batzarrean bertan, **lizitazio berri bat abiatzea proposatuko da**, gaur batzordean onartu dugun bezala. Baina aldaketa nabarmenak izango ditu:

- Hasteko kontratu mota eta iraupena. Egoera ikusita eta zerbitzua berriz ere ematen hasteko **zerbitzu kontratu motz bat lehenetsi da**. Trantsitorioki, urte bat gehi urte bateko luzapenaren aukerarekin. Udaleko teknikariek batera gaia sakon aztertu dugu, eta gauden egoeran, kontratu mota hau eta iraupen hau lehenetsi da.
- Eta bigarrena, **prezio-kalitate lotura lehenetsiko da**. Administrazioaren betebeharra ez da zerbitzuak ahalik eta merkeen eskuratzea; baizik eta prezio eta kalitate irizpideetara egokien moldatzen dena hautatzea. Horregatik, kontratuaren prezioa irizpide honekin eta legeak ematen dituen mugen baitan kalkulatu da.

Esan bezala, kontratu trantsitorioa izango da. Alde batetik, zerbitzua berrezartzea ahalbidetu lukeelako horrela. Eta argitu behar dut, gainera, **lizitazio berri hori esleitu bitarte, gaur egungo enpresa, eta behin kontratua deuseztatzeko prozesua abiatuta, behartuta**

dagoela zerbitzua ematera, nahiz eta kontratua deuseztatu. Hori da aukeretako bat, hurrengo lizitazioa martxan jartzen den arte.

Alde batetik izango dugu garai trantsitorio hori, eta hori ere pasako da. Etorkizuneko kudeaketa ereduaz hausnartzeko tarteak izango dugu. Eta hori egiteko guretzat lau baldintza funtsezkoak dira:

1. halakorik berriro gerta ez dadin zerbitzua bermatzea, hau da, udalak kontrola izatea.
2. zerbitzu hori kalitatezkoa izatea.
3. zerbitzu hori emateko lan egingo duten langileen lan baldintza egokiak bermatzea.
4. kontratua ekonomikoki ere orekatua izatea.

Eta, herritar guztiek espero duten galderari erantzuna ematen saiatuko naiz orain. **Noiz zabalduko da kiroldegia?**

Zuhurtziaz jokatzeko jarraitu behar dugu, data finko bat ez dugulako momentuz. Prozesu honen denborak jarraituta, behin **lehiaketa publiko egin eta enpresa esleituta, argi dago kiroldegia martxan jarriko dela.**

Baina lehenago ere, bada berehalakoan zerbitzua berrezartzeko beste aukera bat. Azpimarratu dut lehen ere gaur egungo enpresa behartuta dagoela zerbitzua ematen jarraituz, nahiz eta kontratua deuseztatu, lizitazio berriaren prozesua amaitu eta kontratu berria sinatzen den arte.

Aukera bat da, langileek greba etetea erabakitzea, behin behinean behintzat. Eta herriak benetan premia handia duela ikusita, eta etorkizunean orain sortutako gatazka eta arazoak bideratzeko pausoak eman direla ikusita, bihotzez uste dut urrats horiek emango direnaren esperantza dudala. **Erabaki horrek lizitazio berria erdietsi baino lehenago kiroldegia irekitzea ahalbidetuko luke, epe motzagoan kiroldegia normaltasunera bueltatuz. Langileek greba eteteak, gainera, ez luke ondorioz izango, abiatu den prozesuetan.**

Esan bezala, herriak, herritarrek, behar dute, eta behar dugu.

Hauek dira, laburbilduta, momentuz udalak eman eta emango dituen urratsak. Nabarmendu nahiko nuke, behin udalbatzak ezohiko batzar horretan aktak onartu ondoren, aipatutako **dokumentazio gehiena publiko izango dela eta kontsultatu ahal izango dela.** Gehiena diot, ez dudalako segurtasunik, dokumenturen bat agian ezin ote den. Baina printzipioz publiko egin daitekeen guztia egingo da eta, beharreko balitz, ni ere prest izango naiz herritarrek dituzten galderak erantzuteko.

Pentsatzen dut herritar askok hala antzemango zutela. Baina hilabete hauetan, udal langile askok egin duten lana eta esfortzua ikaragarria izan da. Idazkaritza, Kontuhartzailtza, Kontratazio eta Kirol Sailerako teknikariek buru belarri aritu dira, eta aipatu bezala, gai korapilatsu eta ertz asko ditu, honaino ekartzeko. Ez dira hilabete errazak izaten ari, eta

barruan gaudenok ikusi dugu egin dituzten, egin ditugun saiakera guztiak. Eta zenbat buruhauste eta frustrazio ekarri dizkigun.

Azken mezua, herritarrei bideratu nahi nieke. Nik badakit, askotan informazio faltaz jendea kezkatuta egon dela. Guk ahal izan dugun neurrian, eskuartean eta prozesua kolokan ez jartzeko eman dugu ahal izan dugun guztia. Kirol taldeekin oso maiz elkartu gara, eta langile eta enpresarekin ere bai. Herritarrei publiko ahal izan dugun guztia esan diegu.

Askotan, gauzak zehaztasun handiagoz esateko gogoia bagenuen, baina zerbitzu juridikoek aholkatuta nahi baino gutxiago esan izan dugu. Hala diot, xehetasunik txikienarekin hanka sarterik handiena ere egin genezakeelako, prozesu guztia konprometituz.

Hemendik aurrera, gure erabakiaren kontra Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora, COJUARA jo dezake enpresak, baina ondoren, behin plenoak kontratua deseuzatzeko prozesua irmo egiten duenean, Kontentziosora jo ahal izango du. Orduan, prozedura administratibo guztiak zuhurtasun handiz egin behar ziren, eta hala egiten saiatu gara. Esan bezala, hobetzekoak izango genituen ziur, eta irakaspenak gerora ere saiaturako gara aplikatzen. Dena den, prozesuak aurrera jarraitzen du, eta joango gara hurrengo urratsen berri ematen.

Askotan esan dut, baina ulergarriak zaizkit denbora horretan sortu diren tentsio, haserre, frustrazio eta gainerako sentipenak. Nik ere ariketa fisikoa, kirola maite dut, baita beharrezko sentitu ere. Baina, tamalez, gure gizartean oraindik, ez da funtsezko edo oinarritzko eskubidetzat hartzen. Nik uste dut epe motzean hala izango dela, eztabaidarik gabe, gure egoera emozionala eta gure garapen pertsonalerako ezinbesteko tresna bihurtu delako.

Nire begirunea azaldu nahi diet ere bai, kirol taldeetako kirolari, langile, boluntario eta gurasoei, edota kiroldegiarekin lotutako gainerako langile eta enpresei: urte luzez egitura eta sare horiek sortzeko egindako lana kolokan jarri delako. Badakigu sailen bat oso larri dagoela, eta horregatik espero dugu gauzak bere onera etorriko direla. Guretzat aktibo eta altxor izugarria dira, eta herriari egiten dioten ekarpena, neurriezina da.

Horregatik, udalaren, eta baita zehazki udal gobernu osoaren konpromisoa berresten dut, herrian berriro ere kalitatezko kirol zerbitzuak izan ditzagun gure esku dagoen guztia egiteko, eta aipatu dudan kirol taldeen sare hori babesteko.

Gauza asko esan ditut. Seguraski, zerbait argitzeko izango duzue, eskerrak berrestuz, galderak erantzuteko prest izango naiz.

Información sobre la situación de las instalaciones deportivas

Andu Martínez de Rituerto, alcalde de Tolosa

Buenos días:

Tengo que decir muchas cosas, y correría el riesgo de irme por las ramas, por lo que os leeré lo que tengo que decir, y luego resolveré vuestras dudas.

El objetivo de esta comparecencia es explicar de la forma más clarificadora posible los pasos que ha dado y va a dar el ayuntamiento en pos de dar una solución a la situación que vivimos con las instalaciones deportivas de Tolosa.

De entrada, me gustaría anunciar que, una vez completado el procedimiento administrativo y los informes técnicos y jurídicos, en la comisión de esta mañana hemos analizado toda la documentación y resuelto todas las dudas. Hecho esto, hemos votado favorablemente los dictámenes para la **resolución del contrato vigente con la empresa de gestión de instalaciones deportivas y para dar inicio al proceso de una nueva licitación. El próximo martes, 14 de noviembre, hemos convocado una asamblea extraordinaria** en la que daremos vía libre a los procedimientos mencionados.

Son procedimientos que requieren abundante documentación técnica y jurídica. A continuación resumiré los motivos y demás detalles para tomar esta decisión. Pero antes conviene aclarar la forma en la que ha intervenido el ayuntamiento en este asunto.

Y es que **la primera opción ha sido la búsqueda de consensos mediante el diálogo**. También porque en nuestra naturaleza está el deseo de tomar decisiones con el consenso de las partes implicadas y porque, por otro lado, era la solución más rápida y sencilla.

El gobierno municipal, el actual, y me atrevería a decir que también el anterior, ha hecho numerosos intentos, en reiteradas conversaciones con trabajadores, sindicatos y empresa, para aportar una solución. A pesar de los numerosos intentos, no se ha podido superar la situación de bloqueo.

La única vinculación municipal en este asunto es la del contrato de concesión actualmente en vigor. No pudiendo superar la situación de bloqueo y viendo que ese contrato no se está cumpliendo durante mucho tiempo, se han adoptado medidas relacionadas con el contrato.

¿Por qué, y en base a qué tomará esta decisión el ayuntamiento? Hay varias causas implicadas, pero las principales son:

1. La concesionaria ha introducido en los datos económicos un concepto que no figuraba en la propuesta inicial, distorsionando el resultado económico del contrato.

En la comisión de hoy hemos decidido no aceptar los datos presentados por el concesionario, en la cuenta de explotación de 2022. Luego os daré más explicaciones.

2. Y, lo que es más importante, que el servicio acordado no se ha prestado durante un tiempo muy prolongado.

Sobre los datos económicos:

Hablaremos sobre dos documentos presentados por la empresa: los datos de explotación económica de 2022 y las previsiones para 2024. Del análisis de estos dos documentos hemos visto lo siguiente:

- No voy a entrar a fondo en el apartado de inversiones, pero hicieron menos de los debidos en 2022, aunque también podemos ser comprensivos en este sentido, ya que estuvieron trabajando durante cuatro meses y a veces no es fácil hacer esas inversiones en ese plazo. En ese periodo deberían realizar inversiones estimadas en 56.000€ y sólo hicieron equivalentes a 7.000€.
- Pero hay un dato que nos parece más grave. Y es el de los gastos generales. Introdujeron este nuevo concepto y aquí vemos que ingresaron un gasto de 71.000€, facturados por una empresa del propio grupo de BPX. Téngase en cuenta que este gasto es de cuatro meses, y el gasto anual supondría más de 200.000 €.

Este gasto no constaba en el estudio económico realizado por el ayuntamiento ni en la oferta presentada por la propia empresa en el concurso. Se trata, por tanto, de un **gasto introducido de forma unilateral, en ningún caso aprobado por el Ayuntamiento. Esto es importante porque este dato condiciona totalmente el resultado económico del contrato.**

- También se aprecian incrementos significativos en los gastos de suministro, especialmente en el caso de la electricidad y el gas, con el argumento del encarecimiento de los precios. **Se trata de un riesgo asumido por la propia empresa (denominado riesgo operacional)** del que en ningún caso es responsable el Ayuntamiento, aunque, en definitiva, tendría su afección, si el gasto se justifica con sus debidas facturas, en las variables de beneficios.

A pesar de estos tres puntos, el resultado económico de 2022 es positivo, superando las previsiones recogidas en el contrato por el ayuntamiento y las presentadas por la propia empresa en su oferta.

La empresa alega, una y otra vez, la inviabilidad del contrato. A la vista de lo anterior, desde el Ayuntamiento se le requirió documentación justificativa de las previsiones de gastos e ingresos para el próximo curso, concretamente para el año 2024, así como de su

inviabilidad. Una vez aportados los datos requeridos, técnicos de los áreas de Intervención, Secretaría y Contratación detectaron algunas irregularidades:

- Muchos datos se alejan del análisis económico-financiero de la licitación y del estudio económico presentado por la propia empresa, y no incluye algunos ingresos.
- Los gastos de personal eran inferiores al estudio económico de la adjudicación y a los propuestos por la propia empresa en el concurso, con una diferencia de más de 50.000€. El gasto de personal, por tanto, no llega a las previsiones presentadas por la concesionaria. En sus previsiones, cuando se presentó a licitación, los gastos de personal que preveía eran superiores a los que necesitaría para 2024.
- Elevan la partida de gastos estructurales de cero a más de 210.000 euros. Es decir, esta previsión de gasto para 2024, es un gasto superior a los 210.000 euros, más los 71.000€ que incluyen en 2022. Ya he dicho anteriormente que es un gasto que ingresan unilateralmente, sin ningún contraste municipal, y que esto afecta directamente a la economía de la concesión. Quiero añadir que, aunque no lo he dicho, **aunque este gasto estuviera recogido desde el principio en la propuesta de la empresa, el órgano de contratación lo rechazaría porque no sería viable.**
- También elevan considerablemente los gastos de suministros, sin asumir el riesgo operacional y lejos de los precios actuales: en el caso del gas, el gasto para 2024 sería más que el doble que el precio de mercado actual; en el caso de la energía y el agua, proponen un aumento del 37%; y en el mantenimiento del 47%.
- En el caso de las inversiones, según los datos presentados, generarían un déficit superior a los 140.000€, porque no cumplirían con lo previsto. También estarían pendientes las mejoras propuestas por la propia empresa en el concurso. Por tanto, se estaría incumpliendo también en este caso lo recogido en el contrato.

A la vista de esto, la conclusión es clara: **los datos modificados por la propia empresa son los que generan el desequilibrio de la situación económica del contrato.** Es más, la empresa presentó los resultados de 2022 el 14 de abril de 2023, con un balance positivo de +19.467,81€. Con las correcciones realizadas por el personal técnico del ayuntamiento, el resultado liquidatorio de la cuenta de explotación 2022 sería de 92.329,36 euros. Y estas son las cuentas que hoy no hemos aprobado y las que hemos propuesto a enmienda.

En esta concesión existían dos variables: por un lado estaba el canon de 120.000€, sin ninguna condición. Y luego estaban las ganancias variables. Hasta 62.000€ eran asumidos directamente por la empresa. Y de ahí en adelante, siempre que se cumplan algunos estándares de calidad, el 70% podía ser para la empresa y el 30% restante sería para el ayuntamiento. Entonces, si el balance presentado era de 19.000 euros, introduciendo de alguna manera partidas adicionales, ese límite de 62.000 euros no se supera y todos los beneficios son para la empresa. Y como se ha comentado, de 62 a 92 debería haber una

distribución, si cumplen los exámenes estándar de calidad, de la que el 30% debería ser para el ayuntamiento: en este caso, 10.000€ de beneficios + el canon.

Junto a este informe económico, la empresa realizó una propuesta al Ayuntamiento para romper el supuesto desequilibrio contractual –y digo supuesto desequilibrio, ya que se produce como consecuencia de esos datos modificados aportados por la propia empresa–. La propuesta consistía en aplicar un incremento del 2,1% de las tarifas, además de una aportación municipal de 293.000€.

Entonces aquí tenemos, por un lado, los gastos generales, que ascienden a 217.000 euros, más estas aportaciones adicionales.

Ya hemos aclarado públicamente este punto, pero conviene recordar que **el ayuntamiento no puede, por ley, en ningún caso, aportar dinero en una concesión**. El contrato de concesión no permite que el ayuntamiento ponga dinero y hay sentencias en este tipo de casos y una en la propia Gipuzkoa, donde un ayuntamiento inyectó dinero en una concesión y los juzgados lo rechazaron. Eso lo hemos tenido muy claro desde el principio, por indicación de nuestro personal técnico.

La única vía de financiación que tenía este contrato es el número de abonados y abonadas y sus cuotas. Las cuotas, siempre en condiciones muy concretas. De alguna manera, en casos para compensar un desequilibrio económico. No voy a entrar en cuestiones muy concretas y técnicas, pero jurídicamente está muy definido en qué circunstancias se pueden subir las cuotas y en este caso concreto, no se daba esa posibilidad.

Por tanto, la aportación económica propuesta por la empresa sería contraria a la legalidad.

A la vista de ello, el ayuntamiento planteó en agosto una subida de tarifas del 2,5%, hasta los límites del contrato. Nuestros técnicos insistieron en que era muy difícil. Pero, en cualquier caso, de alguna manera encontraron unas vías dentro del contrato que pudieran justificar ese incremento del 2,5%. Reitero: con mucho esfuerzo para justificarlo.

Con esto quiero señalar que el ayuntamiento había hecho un esfuerzo adicional. Nosotros no queríamos hacerlo, más aún, sabiendo que la economía del contrato era adecuada. Sin embargo, hicimos ese esfuerzo pensando que podía ser una vía para desbloquear la situación.

La empresa decidió no aceptar esta propuesta y dando por agotada la vía del acuerdo, el siguiente paso fue adoptar las medidas correspondientes al contrato. Insisto, sobre todo, por la principal razón de que no se estaba prestando durante mucho tiempo, los servicios recogidos en el contrato. Concretamente, han pasado seis meses y dos días.

Y en cuanto al servicio:

El Ayuntamiento ha enviado varios requerimientos a la empresa para que restableciera el servicio. La última en septiembre, a las puertas del inicio del curso escolar, por los daños que provocaba el cierre de las instalaciones. De hecho, en ese mismo requerimiento, se le advirtió de que si no se restablecía el servicio, el ayuntamiento iniciaría el proceso para la resolución del contrato.

La empresa dispone de 10 días para abrir dicho requerimiento y 10 días más para contestar. Pues bien, lo abrió al noveno día, y respondió lo siguiente otros 10 días más tarde:

Que, a pesar de su plena voluntad de prestar el servicio, no podía hacerlo por el derecho de huelga de los trabajadores. Además, mientras prestaba servicio en Berazubi y Beotibar. Y que hizo lo propio en el frontón Uzturpe, hasta que se cerró por el mal estado de las instalaciones.

Cabe destacar que en estas dos primeras instalaciones no ha prestado el servicio en su totalidad y que los pocos servicios prestados se realizan gracias a convenios con personas autónomas o clubes deportivos. Y, en general, no se ha realizado el mantenimiento y vigilancia que requieren las instalaciones.

Esto ha dejado graves consecuencias en 11.000 usuarios: y especialmente en la educación reglada (recordemos que los centros educativos utilizan algunas de estas instalaciones para la educación física) y en la actividad de los equipos deportivos.

Además del mantenimiento, se podría cuestionar la falta de protección y seguridad de las instalaciones. De hecho, han accedido al campo de fútbol del polideportivo Usabal, donde el cuidado recae en la empresa. A pesar de haberlo solicitado, no ha tomado las medidas suficientes.

Desde el momento de la firma del contrato de concesión, la empresa tiene compromisos y obligaciones, entre los que se encuentra el de la prestación continuada del servicio, respetando las condiciones pactadas, y el de la conservación del orden del servicio. **Según sentencias dictadas por tribunales de distinto rango, un conflicto laboral no es en absoluto un argumento de peso que justifique la no prestación indefinida del servicio en el tiempo.**

Una vez expuesto todo esto, quisiera subrayar que se han reflexionado y analizado en profundidad las decisiones, ya que son muy complejas jurídicamente. Pero a tenor de los análisis realizados, y de lo aconsejado también por los servicios jurídicos externos, el ayuntamiento tiene razones de peso para tomar esta decisión. Y también existe jurisprudencia favorable.

Hasta aquí el primer punto que trataremos en el pleno del martes y que dará inicio al proceso de resolución del contrato. Y a partir de ahora, ¿qué?

Como se ha dicho, se abre una nueva fase en la que se inicia un nuevo proceso. En el mismo pleno se propondrá **el inicio de una nueva licitación**, tal y como hemos aprobado hoy en la comisión. Pero tendrá cambios sustanciales:

- Por un lado, el tipo de contrato y su duración. Dada la situación y para reanudar el servicio se ha priorizado **un contrato de servicios corto**. Transitoriamente, con la posibilidad de una prórroga de un año más un año. Junto con las y los técnicos municipales hemos estudiado en profundidad el tema y en la situación en la que nos encontramos, se ha priorizado este tipo de contrato y esta duración.
- Y la segunda, se **priorizará la relación precio-calidad**. La obligación de la Administración no es la de obtener los servicios de la forma más barata posible, sino elegir la que mejor se adapte a los criterios de precio y calidad. Por ello, el precio del contrato se ha calculado con este criterio y dentro de los límites que otorga la ley.

Como decíamos, será un contrato transitorio. Por un lado, porque permitiría así restablecer el servicio. Y he de aclarar, además, **que hasta que no se adjudique esta nueva licitación, la empresa actual, y una vez iniciado el proceso de rescisión del contrato, está obligada a prestar el servicio, aunque se rescinda el contrato**. Esta es una de las opciones, hasta que se ponga en marcha la próxima licitación.

Por otro lado tendremos tiempo para reflexionar sobre el modelo de gestión del futuro. Y para nosotros son cuatro las condiciones fundamentales para ello:

1. garantizar el servicio para que esto no vuelva a ocurrir, es decir, que el ayuntamiento tenga el control.
2. que dicho servicio sea de calidad.
3. garantizar las condiciones de trabajo adecuadas al personal que va a prestar este servicio.
4. que el contrato sea económicamente equilibrado.

Y, ahora, voy a intentar dar respuesta a la pregunta que toda la ciudadanía espera.

¿Cuándo se abrirá el polideportivo?

Hay que seguir siendo prudentes, no tenemos una fecha fija de momento. Siguiendo los tiempos de este proceso, **el polideportivo se pondría en marcha tan pronto como finalice el concurso público y se adjudique la nueva empresa**.

Pero hay otra posibilidad de restablecer el servicio de forma inmediata. He subrayado ya anteriormente que la empresa actual está obligada a seguir prestando el servicio, a pesar de la resolución del contrato, hasta que finalice el proceso de la nueva licitación y se firme el nuevo contrato.

Esta opción pasa por que las y los trabajadores decidan pausar la huelga, al menos de forma provisional. Y viendo que el pueblo realmente tiene mucha necesidad, y que se

han dado pasos para encauzar en el futuro estos conflictos y problemas, creo de corazón que tengo la esperanza de que esos pasos se darán. **Esta decisión permitiría abrir el polideportivo antes de que finalizara la nueva licitación, volviendo a la normalidad a corto plazo. La pausa de la huelga por parte de las y los trabajadores, además, no tendría consecuencias en los procesos que se han iniciado.**

Como se ha dicho, el pueblo, la ciudadanía, lo necesita, lo necesitamos.

Estos son, en síntesis, los pasos que ha dado hasta el momento y dará el ayuntamiento. Me gustaría destacar que, una vez aprobadas las actas por el Pleno, **la mayor parte de la documentación mencionada será pública y podrá ser consultada.** Digo la mayor parte porque no tengo total seguridad de que algún documento quizá no pueda ser. Pero en principio se hará todo lo que se pueda hacer público y, si fuera necesario, yo también estaré dispuesto a responder a las preguntas de la ciudadanía.

Supongo que mucha gente lo habrá percibido así. Pero en estos meses, el personal técnico municipal ha realizado un trabajo y esfuerzo impresionante, especialmente en las áreas de Secretaría, Intervención, Contratación y Deportes. No están siendo meses fáciles y los que estamos dentro hemos visto todos los intentos que se han hecho, así como cuántos quebraderos de cabeza y frustraciones nos ha traído.

El último mensaje, me gustaría dirigirlo a la ciudadanía. Yo sé que muchas veces la gente ha estado preocupada por la falta de información. Nosotros, en la medida de lo posible, hemos dado todo lo que hemos podido para no comprometer el proceso. Nos hemos juntado muy a menudo con los equipos deportivos y también con las y los trabajadores y la empresa. Hemos dicho públicamente a la ciudadanía todo lo que hemos podido.

Muchas veces teníamos ganas de decir las cosas con más precisión, pero asesorados por los servicios jurídicos hemos dicho menos de lo que queríamos. Lo digo porque con el más mínimo detalle podríamos haber cometido el mayor error, comprometiendo todo el proceso.

A partir de ahora, en contra de nuestra decisión, la empresa puede dirigirse a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, COJUA, pero posteriormente, una vez que el pleno firme el proceso de diseño del contrato, podrá dirigirse al Contencioso. Entonces todos los procedimientos administrativos se tenían que haber hecho con mucha prudencia y así lo hemos intentado. Como decíamos, seguro que tendríamos cosas para mejorar, pero seguro que todo lo aprendido de este proceso podamos aplicarlo en el futuro. De todas formas, el proceso continúa e iremos informando de los siguientes pasos.

Lo he dicho muchas veces, pero me son comprensibles las tensiones, enfados, frustraciones y demás sentimientos que han surgido durante este tiempo en la ciudadanía. Yo también amo el ejercicio físico y el deporte, y los siento como necesarios. Pero, lamentablemente, todavía en nuestra sociedad, no se consideran como un derecho fundamental. Yo creo que a corto plazo lo será porque, sin discusión, se ha convertido en en



una herramienta imprescindible para nuestro estado emocional y para nuestro desarrollo personal.

También quiero mostrar mi respeto a deportistas, trabajadores, voluntariado y padres y madres de los equipos deportivos, así como al resto de trabajadores y empresas relacionadas con el polideportivo. Esta situación ha comprometido el trabajo realizado durante años en la creación de estas estructuras y redes. Sabemos que la situación de varios de ellos es realmente crítica y por eso esperamos que las cosas se solucionen. Para nosotros son un activo y un tesoro inmenso, y su aportación al pueblo es inmensurable.

Por ello, reitero el compromiso del ayuntamiento, y en concreto de todo el equipo de gobierno municipal, para hacer todo lo que esté en nuestras manos para que volvamos a tener servicios deportivos de calidad, y apoyar esta red de clubes deportivos.

He dicho muchas cosas. Seguramente tendréis algo que aclarar, reafirmando mi agradecimiento, estaré dispuesto a contestar las preguntas.